

PLaza

46 ■ Zinebi zinema jaialdiaren sariak
 » 'Le printemps de Saint-Ponç' animazio film suitzarrak irabazi du Bilboko Zinebi jaialdiaren sari nagusia.

«Disko hau festa bat izan da»

RUPER ORDORIKA Kantaria

'Memoriaren mapak' diskoa aurkeztu eta urtebetera, bira luzeari amaiera emateko kontzertua eskainiko du Ruper Ordorikak gaur, Viktoria Eugenia.

ALBERTO BARANDIARAN
 Iruñea

Euskal Herria ia osoan, Katalunian, Espainian zehar, Ingalaterran dantzatu ditu Ruper Ordorikak azken diskoko kantak. Joseba Sarriñandiarren hitzekin osatutako hamaika aitormen, belaunaldi baten erretratu ia. Kantariak lezioa ikasita iritsi dela dio. Zuzenekoan eta ia bakarrik kantatzeko zituena dudak uxatuta, isiltasunarekin hurbiltasun handiagoa lortu duela irizita. Gaur, Jon Piris, Gorka Benito eta Juan de Diego musikariak lagun izango ditu.

Urtebete igaro da diskoa aurkeztu zenuenetik. Zer irudipenarekin iritsi zara bidearen bukaerara?

Urteen poderioz sentsazioa daukat bilakatu naizela zuzeneko musikari. Lehen gehiago nintzen diskokoa, baina *Memoriaren mapak* lan honek eman dit bidea kantale-

diak beste era batera antolatzeko. Eta ez neukan ziurtasun handirik, ez naizelako lehenago ibili horretan hain luze, kontrabaxu batekin biok bakarrik elkarrekin. Baina zuzenekoak egiten du diskoa berdin, erabat biribildu. Sentsazio hori daukat, kantuok, orain, hala naturaltasunez hartzen ditudala, hor beti nirekin egon direla.

Desberdin sentitzen dituzu orain?

Hori beti izan da horrela. Horregatik esan dizut diskoa biribildu egin dela jende aurrean. Nire kasuan gehituko nuke ni ez naizela behin ere sentitu interprete. Gauzak barneratu behar ditut, ez naiz erreperitorioaz aise aldatzen ahal den horietako bat. Beste tempo bat behar izaten dut.

Zeure egin behar dituzu kantak, alegia. Hori nola egiten da? Aldez aurretik landu behar dituzu, ala zuzenekoaren ondorioz etortzen da?

Kasu honetan oso helduta ailegatu nintzen diskora. Bakarka grabatu nuen, eta horretarako bide luze samarra dago aurretik. Beste kasu batzuetan beste eratara egiten saiatzen naiz, gehiegi moldatu gabe. Hartara, musikariekin elkartzen naizenean, ate guztiak zabalik uzten ditut, ez markatzeko ez erritmoa, ezta tonua ere. Kasu honetan, nahiko zehatz iritsi naiz.

Biluzi samar aterata zara agertokietara.

Dagoeneko urtebete pasatu da, eta hasieran ez zen samurra izan, ez. Askotan, teknologia beragatik ere, musikari gehienok garatu dugu perfekzio irudi bat geure buruan, askotan batere naturala ez dena. Eta teknikak hainbat zuzenketa egiteko aukera ematen digu. Eta gitarrekin bakarrik ateratzen zarenean, ez da samurra onartzea hor egon daitezkeen inperfekzioak. Horrek zer dakarren? Kantuek gehiago irauten dutela, bizirik daudela. Alde horretatik ikasgaia izan da, lezio bat. Asko ikasi dut.

Jendearen aurrean ere hurbilago sentitu zara?

Beste harreman bat sortzen da berez. Isiltasunarekin libertate handiagoa sumatzen dut. Baina hori ez dator bat, derrigorrez, intimitatearekin. Intimitatea ez dago lotuta bakarka jotzearekin. Baina kantu hauek, soiltasunean, berba lehenesten da.

Disko honetan, bederen, hitzek presentzia handia dute, musika haietazko espresuki egin balitz bezala. Sumatu duzu indar hori?

Hitzak oso garrantzitsuak izan dira beti niretzat. Bere garaian ospakizuna hitza erabili nuen, ospatu egiten baititut Joseba Sarriñandiarren hainbat testu, eta ideia

horrek pisua hartzen duelako diskoan. Baina badira Sarriñandiarren testuekin egindako hainbat testu eta kantu, kantari handiek, eta txikiak eta erdikoak egin dituztenak, oso onak...

Baina badirudi Sarriñandiarren letrak Ruperrek kantatzeko eginak daudela.

Ez dut uste, ez dut uste... Ez nuen inoiz entzun hori.

Disko honek oso garbi transmititzen du hori.

Hala bedi. Badut sentsazioa... Ez dakit nola azaldu, baina halako naturaltasun sentipen bat daukat. Iruditzen baitzait kantu horiek, *Ibaia* eta, berez horrela izan direla beti. *Hondartza galduta* eta, kantu hauek orokorrean, gure belaunaldiko batzuen ahotik mintzo direla. Kantua genero berezia da, maizsufritu egiten duena paperean, maiz ukatu egiten zaiolako poesiaren gradua, nahiz eta poesiatik edaten

«Kantu hauek, orokorrean, gure belaunaldiko batzuen ahotik mintzo dira, horrela sentitu ditut»

«Urteen poderioz, sentsazioa daukat zuzeneko musikari bilakatu naizela, kantaldietakoa»

duen. Eta nik beti esaten dut poesia batek ez duela berez kantu on bat egiten, eta alderantziz ere ez. **Ibaizabaleko hori, kantu biribila da, eta, aldi berean, poesia puska ere bai, ezta?** Ez dakit, nik uste dut oso kantua dela. Ausartuko nintzateke esatera hori dela Sarriñandiarren ezauzgarrietako bat. Bere berben, bere hitzen zehaztasuna, oso ondo egokitzen direla kanturako. Nire irudipena da.

'Ibaia' kantu hori da giltzaria?

Ez da larregi sakondu behar ikusitako disko honetan bi gai gailentzen direla. Bat, *Ibaia* hori, erbestetik luzatutako begirada. Erbestean, sekulan berezko lekuan ez dabilen jendea disko honetan ageri da. Tokiak, norberaren lekuan ez egotea. Hori da gai bat. Bestea, zentzu zabal batean, maitasuna. Gainera, hori ikusten dut behar bada berritasun handiena. Gai horiek idazleak ez ditu ukitu gisa honetan orain arte. Ezta nik ere.

Disko hau mugargi izango den inpresioa duzu?

Ezezagun dudana egoera batean nago. Igandeko [gaurko] kontzertua itxiera moduko unea izango da, hala ematen du. Eta bukaeran aterako dut orain dela urtebete, Mugalariekin, zuzenean grabatutako emanaldi bat, guztiz bestelakoa. Eta badut gogoa kantuak taldearekin probatzeko. Eta batzuk entzuten ditut neure buruan. Baina uste dut orain ibili naizena bezala, asko ibiliko naizela.

Nekaturata iritsi zara?

Ez, azken aste honetan hiru kontzertu jarraian egin ditut, eta noiz egiten dut, baina hain nabilen pozik, ez naizela akiturik amaitu. Nik buruan neukan datorren zuzeneko disko hau orain ateratzea, eta lanak eginda neuzkan uda aurretik. Baina halako batean, lagun batekin berbetan hasi, eta ea mugatuko nukeen disko honen ibilbidea. Bera oso zaletuta dago disko honekin, eta arrazoi zuela iruditu zitzaidan, eta azken hilabeteen hogeit bat kontzertu egin ditut. Diskoak badu segidarik. Gero, esan dizudana, modu akustiko honek asko markatzen nau.

Viktoria Eugenia berritu honetan jotzea berezia da, ezta?

Bai, ospakizun txiki bat izango da niretzat.

Ospakizun hitza aipatzen duzu askotan. Festa bat balitz bezala.

Niretzat bai, festa bat izan da disko hau.

Ez da disko alai, hala ere.

Ez, baina urteak pasatzen dira, badakizu, eta berriz bat egitea nire lagun zahar honekin, eta miresten dudana idazle batekin, gauza handia da, besterik gabe. Nire barruan, oso garbi izan dut, hasieratik, niretzat zer den. Gauza handia.



JON URBE / ARCAJO PRESS